



Bertsok Maratoiaren bezperatan... Euskararen Maratoirako astebete eskas falta denean, herriko bertsolariek bertsozaleekin batera egindako saioa benetan arrakastua izan zen. Jalgi kafe antzokia jendez gainezka egon zen, artista amateurren senide eta lagunez gehienbat, eurenak bertsotan nola moldatzen ziren ikusi nahian edo. Saio soilaz harago, Maratoiko final handian kantatu ahal izateko txartela zegoen jokoan larunbata gauean. Giro ederrean aritu ziren, umore onean eta uneoro elkarlanean. Suberbiolaren esanetara kantuan aritu ziren 6 bikoteak hauek izan ziren: Unai Muñoa eta Joxe Mari Agirretxe, Andoni Otamendi eta Gorka Segurola, Amaia Agirre eta Alaitz Mendizabal, Imanol Lizardi eta Beñat Iguaran, Asier Azpiroz eta Ebaristo Pikabea eta Ane Labaka eta Txantxe. Azken bi bikoteek lortu dute finalera sailkatzea, herriak bozketa bidez hala erabaki ostean. Ikustekoa izango da!

3 UDALBATZARRA

Hernandez Martin Udalaren ordezkari Kutxabanken

Jacinto Hernandez Martin izango da Udalak Kutxabanken izango duen ordezkaria. Astearteko Udaltzarrean EAJ, PP eta PSE-k bat egin zuten azken honek proposatutako Hernandez-en alde bozkatzeko. Haren ordezkolanetan Jose Maria Urdanpilleta arituko da.

4 JUDO

Lasarte-Oria IX. akordeoi jaialdian, kalitate handia

Herriko LOKEko judokek txapelketa garaia hasi dute dagoeneko. Pauen izan ziren lehiatzen eta asteburu honetan berriz, Palermon eta Vigon egon dira. Gorka Aristegi judoken entrenatzailearekin elkartu gara denboraldiaren nondik norakoez hitz egiteko.

5 KROSA

Lasarte-Oria Bai! herri krosa aurkeztu dute

Aurtengo Lasarte-Oria Bai! krosa urriaren 28rako antolatuta du Ostadar SKT-k eta gaurtik aurrera, izena eman ahal izango dute honetan parte hartzeko asmoa dutenek. Aurtengo 1 dortsala kotxe-eskoba taldeari ematea erabaki du antolakuntzak urtero bertan egoteagatik.



Euskararen alde !!



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



Adituak dio



Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria Parte hartu!

Aukera edo erronka polita daukagu berriro ere. Euskal elkarte, herri, herrialde, nazio eta munduari zertarako gai garen erakutsiko diogu urriaren 20 eta 21ean. Euskaraz, eta euskara hutsez, 40 ordu ekintza ezberdinekin festa giroan beteko ditugu, mota eta pentsaera ezberdinetako hiritarrak elkarturik eta gure altxor nagusienaren defentsan: EUSKARA. Euskararen erabileraren alde, Lasarte-Oria euskalduntzearen alde.

Gaurkoan, zortzikotearen, elkarteen (hauen artean TTAKUN, langileak batik bat), instituzioen eta boluntario askoren lana eskertzearekin batera, dei bat luzatu nahi nizukeke herritar guztiei: zatozte eta parte hartu maratoian, bakoitzak eman lezakeen gutxiarekin. Eta batez ere disfrutatu elkarrekin euskaraz mintzatuz, dantzatzuz, abestuz, bazkaldu eta afalduz, "tragotxo batzuk" hartuz,....

Gure hizkuntzaren aldeko eguneroko lanari tinko eusten diogula erakutsi behar dugu arnasa hartu eta aurrera jarraitzeko eta 40 ordu bakarrik beharrean, gure herrian bizitza oso bat euskaraz egin ahal izateko.

Kanpotik zatoztenei ere ongi etorrikerik beroena eman nahi dizuet Ttakun Elkartearen izenean. Ondo pasa gurekin eta, ausarten bazarete, datozen urteetan ea animatzen zareten zuen herrietan honelako zerbait antolatzen.

Beraz Lasarte-Oriako euskaldun, euskaltzale, elkarte, enpresa, instituzio eta herritar oro gonbidatuta zaudete maratoira. Animo, parte hartu eta bertan topatzen garenean hitz egingo dugu, euskaraz noski.

Hitz eta pitz

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?



Alaitz Mendizabal
Baditugu ekimenak urtean zehar euskararen alde baina guretzat garrantzitsuena Euskararen Maratoia da. Guztiak izan dira ezberdinak niretzat adinarengaitik batez ere. 15 urterekin parranda, orain jaiaren indarrak jabetzen naiz. Kolore askotariko jai, alai, zahar, gazte dantzan jartzen dituen. Euskaraz mintzatuz sortutako jai erraldoia!



Estibu Alkorta
Euskararen Maratoia Lasarte-Orian euskaraz bizi eta gozatzeko aukera ematen duen herritarren festa, jaialdi handia da. Niretzako euskararen festa da baina baita gure hizkuntzaren aldarrikapen bat. Pertsonalki asteburuan zehar Oken-dotik egoteko asmoa daukat. Festaz gozatu nahi dut.



Ana Prieto
Niretzako Euskararen Maratoia festa handi bat da eta oso gertutik bizi dudana. Bertan egotea eta parte hartzea gustatzen zait. Momentu ezinhobea da euskara egunero erabiltzen ez dutenei euskara gertutzeko eta gure herrian hizkuntza bera zabaltzeko. Dagoeneko iristeko irrikitan nago!



Nerea Artamendi
Maratoia, elkarkidetzeta, bateratze eta hartu-emanerako tresna egoki bat dela deritzogu, eta gu beti euskararen defentsan argi azaldu gara, ondasun eta aberastasuna den aldetik. Hizkuntzak, orohar, bide eta ez helmuga dira; tresnak, mezu bat islatu eta igortzeko, non garrantzitsuena azken hau den, igorle eta hartzailearekin batera.



Antton Garin
Herrian euskara indartzeko, euskara gure hizkuntza dela kontzientziatzeko beharrezkoa den festa da. Galtzearen euskara, debekatua egon zen, Lasarte orain dela 35 urte etorri nintzen eta aldaketa handia egin du, hobeto dago. Orain euskara entzuten da kalean. Orduan eskolaren sarreran ere ezin zen egunon esan.



Eurne Biain
Euskararen maratoia zer den? Euskararen bueltan egiten den festa handia. Gaur egun zorritzarekin oraindik beharrezkoa ikusten dut gainera. Badirudi, festa giroan jendea animatzen dela edo motibatzen dela euskara erabiltzeko. Maratoian ez dut asko parte hartzen, gutxi, ikusle bezala soilik.



Juan Bereziartua
Interesantea euskararentzat. Askotan pentsatzen dut hemen bizi direnak kexatuko direla baina agoantatzen ikasi behar, lau urtean behin da eta. Mendi ibilerara joateko idea badaukagu, baina asko ez dugu parte hartuko, edadean aurrera goaz eta. Kilometroak, korrika,... denak dira beharrezkoak. Gazteak saiatu behar dira.



Inazio Otaegi
Maratoia hasi zenean apustu handia izan zen. Orain, martxa hartuta, errazago antolatuko dute. Hala ere, izugarritzak da, ondo ikusten dut eta beharrezkoa ere bai. Nire iritziz, euskararen alde lan asko egin da, baina agintarien aldetik ez diote euskarari behar zuen bultzadurik eman. Esan bai, elebitasunaren alde daudela...



Lehen maratoi hartako argazkia dugu hau, oholtzta txikia baina jendetza plazan euskarari babesa emanez.

Iruditan

Maratoia erronka baino gehiago

1986. urteko urriaren 25 eta 26an egin zen lehenengo Euskararen Maratoia Okendo plazan. Lagun artean sortu zen euskaraz 40 orduz aritzeko erronka. 40 orduan euskaraz hamaika ekintza egiteko gaitasuna zegoela erakutsi nahi zen. Orduan oholtzta gainean Joxe Mari Agirretxe, Bixente Beltran, Mailu Arruti, Jesus Izeta, Agus Mujika, Anabel Izagirre, Natxo Izeta eta Jon Iñaki Elexpuru herritarrek egon ziren, lehenengo zortzikote horrek herritar askoren babesa izan zuen plazan eta festa giro politoan ospatu zen gogoratzen dutenez.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

HAUTESKUNDEAK



Propaganda banatzen feria egunean.- Asteazkena herritarrei propaganda banatzeko erabili zuten politikariek. Horrela erdigunean ibili ziren EHBilduko Mayi Bengoetxea, PSEko Jesus Egiguren, Jesus Zaballos, Iñaki Mugica, Lourdes Acevedo, Martin Moreno eta Nerea Artamendi, Ezker Anitzako Mikel Izagirre eta Antton Karrera. UPyD alderdiko partaide batzuek ere etorri ziren Lasarte-Oriara.

HISPANITATEAREN EGUNA

Ikasle Abertzaleak Euskal Eskola Nazionalaren alde

Euskal Eskola Nazionala aldarrikatu eta PPren erreformak salatu ditu ikasle abertzaleak urriaren 11 eta 12an. Ostegunean ez ziren eskolara joan eta ostiralean, ofizialki jai eguna zen arren, bai. Ostegunean DBH hirugarren eta laugarren mailako herriko ikasleek greba egin zuten eta ostiralean, hispanitatearen egunean "ezer ospatzeko ez dugula adieraziz" herri eskolak antolatuta zituzten. Ikasleek hezkuntza eredu berri bat eskatu zuten, Euskal Eskola Nazionala.

Ostegunean Landaberri DBH eta institutuan greba egin zuten ikasleek eta batzuek eguerdiko 12:00etan Heranin egin zuten eskualdeko manifestazioan parte hartu zuten.

LIBURU AURKEZPENA

Amurizak "Zazpi ebidentzia birjaiotzarako" aurkeztu du

Lasarte-Oriaran aurkeztu du Xabier Amuriza idazle eta bertsolari bizkaitarrak Lankurekin argitaratu duen bigarren lana "Zazpi ebidentzia birjaiotzarako", hain juxtu, Pablo Barrio alkateari dion "kariñoagatik". Adiskide biek parte hartu dute Villa Mirentxun egin den aurkezpenean.

Amuritzaren testu batzuek antzerki bihurtzeko proposamena egin zion Barriok beste lagun batzuekin batera, oso ondo iruditu zitzaion bertsolariari, baina elkarlana eten egin da alkate izendatzearekin batera: "pena ematen dit gure proiektu hura gelditu behar izateak hala ere, asko poztzen nau Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkate izateak".

"Euskara batuaren bigarren jaiotza" lanari jarraipena eman nahi izan dio Amurizak gaur aurkeztu den liburuarekin, "bidezko eta beharrezko iruditu zait bertsiio zentratuago bat ematea, euskararen norabidearen gako erabakiorrak hausnar-

teza, arazo nagusiak zazpi ebidentzian jasota". Liburuan saiakera eta literatura uztartzen ditu Xabier Amuriza idazleak eta zazpi ebidentzia hauetara iristeko bidean adibide errazak, egunerokoak, jorratu ditu.

UDAL BATZARRA

Jacinto Hernandez izango da KutxaBanken ordezkaria

EAJ, PSE eta PPK bat egin zuten udal batzarrean izendatzeko Bilduren iritziz alderdi hauen eredu ez da banku publikoa

Astearteko Udaltzatzairean PSE, EAJ eta PPK bat egin zuten Jacinto Hernandez Martin izendatzeko KutxaBanken Udalak izango duen ordezkari gisa.

Urriko Udal batzarrean hartutako erabaki garrantzitsuenak Kutxarako ordezkariaren izendapena eta Goikalen egoera txarrean dagoen ingurua konpontzen hasteko azterketa bat egiteko proposamena izan ziren.

Kutxako ordezkaria PSEk proposatutako Jacinto Hernandez Martin izango da eta bere ordezkaria, Jose Maria Urdanpilleta, hala erabaki zutelako PSE, PP eta EAJk.

Bilduko ordezkariak kontrako botoa eman zuten eta beste ordezkariak, Marisa Zubiri atxiki gabekoa eta LOHP-ko zinegotziak abstenitu egin ziren.



Kutxaren aurrean protesta egin zuten Bilduko kideek ostegun arratsaldean.

Bilduk ostegunean prentsaurrekoa eman zuen gero Kutxaren bulegoaren aurrean. Alderdi honen iritziz, bankuaren egungo egoeran bi estrategia edo bide posible daudela, "PP-PNV-PSE koalizioak eskaintzen duena. Banka publikotik asko urruntzen dena eta bere pribatizazioa bilatzen duena profesionalizazioaren aitzakiapean, gutxi batzuen eskutik utziz" eta bestea Bildu

koalizioan biltzen diren Ezker abertzalea, Aralar, Eusko alkatasuna eta alternatibak babestua, "Euskal gizartearen beharrei erantzun dion kutxa eredu publiko, soziala, partehartzaile eta demokratikoa. Herritarren beharrak aseko dituen, bere rol komertziala alde batera utzi eta inbertsio produktiboak erraztuko dituen beti ere ingurugiro eta gizarte kriterioak oinarritzat hartuz".



Lanku-ko Mikel Mariskal, Xabier Amuriza eta Pablo Barrio ostegun goizean.

teza, arazo nagusiak zazpi ebidentzian jasota".

Liburuan saiakera eta literatura uztartzen ditu Xabier Amuriza idazleak eta zazpi ebidentzia hauetara iristeko bidean adibide errazak, egunerokoak, jorratu ditu.

Euskara batuak dagoeneko 50 urte gaindituta hizkuntza-

ren hainbat arazo konpondu gabe daudela azpimarratzen du eta irizpide falta nabarmena salatu.

Euskara hobetzeko edo garatzeko zazpi ebidentzia ikusten ditu Amuritzak: Esaldien luze zein laburrak, erraz zein konplexuak, behar dituela euskarak; esaldien ordenatzeko modu asko daudela eta denak baliagarriak; beste hizkuntzek bezala sintaxi oso eta zehatza behar duela; Aditza erraztea ere bai, laburtzeko aditza trinkoak erabiliz; hizkuntzen ondare amankomuna den lexikoari bultzada; esapide eta esaeren beharra, eta hizkuntzen bizi-ardatz izan ohi den argotaren premia.

M. Berasategi

Kafeak

Maratoiarekin euskararen alde!



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316 LASARTE-ORIA



JUDO.

LOKEko judo saila lehiaketa garaian

Asteburu honetan, judoka gazte batzuk Palermon eta besteak Vigon izan dira

LOKEko judoek txapelketa garaia hasi dute. Lehengo asteburuan, Pauen izan ziren lehiatzen. Honetan, Palermon eta Vigon egon dira. Gorka Aristegi entrenatzailearekin bildu gara aurtengo denboraldiari buruz gehiago jakiteko.

Nazioarteko, zein estatu mailako txapelketak izan dituzte aste hauetan LOKEko judoek eta horregatik serio ari dira lanean.

Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu digunez, batzuek abuztuan hasi zituzten entrenamenduak eta txikienek iraillean.

"Txikiak betiko erritmoan ari dira entrenatzen eta kopuru politarekin; handien taldean bi multzo daude helduak eta atzetik datozen generazio berriak daude" azaldu digu.

Eta nahasketa polita dela gaineratu du, "helduen talde-

txoaren laguntzari esker, besteek ikasten dute eta hori niretzako gozada bat da."

Txapelketak

Eta lan guzti honek helburu bat du "txapelketetan parte hartzen ari denak emaitzarik hoberenak lortzea da".

Arlo honetan iazko emaitzak izango dituztela uste du LOKEko entrenatzaileak eta ederki hasi dira. Urriaren 6 eta 7an ospatu zen Pau Hiriko txapelketan Oscar Garrido judoka irabazle izan zen 90 kiloko lehian.

Asteburu honetan berri, Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin Palermora



Maila desberdinetako judokak lanean gogor ari dira kiroldegiko tatamian iazko emaitzak berdindu eta gerriko beltzak edo danak lortzeko.

joan dira herriko judoka batzuk eta besteak Vigora.

Gerrikoak

Bestetik, gerriko beltza edo danak lortzea helburu duten judokak daudela ere aipatu eta

azaroan dagoen azterketarako prestatzen ari direla jakitera eman digu. "Pentsatzen dut gaintutako dutela," onartu du.

Sanboa

Baina judoaz gain, sanbo

borroka ere landuko dutela aipatu digu Gorka Aristegik. "Sanbo egiten jarraituko dugu, gazteek nahi dutelako. Ni ez nago oso motibatua, baina sanbo borroka irakaste-ko eskatu didate," aipatu du.

MENDIA.

Bosgarren Ibilbideen egunean, Aginagaraino

Buruntzaldeko 5. Ibilbideen Beguna izan zen igande goizean. Aurreko urteetako protagonistak familiak eta haurrak izan baziren ere, aurtengoan ibiltari helduagoak osatu zuten Aginagarainoko bidea. Mendiko botak jantzi eta Santueneatik barrena, Aginagarainoko bidea egiten ausartu ziren hainbat herritar. Guztira 9 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eguraldi petral xamarrek uneoro mehatxatu bazituen ere. Ostadar SKT-eko Mendi saila pozik zen deialdiak izandako oihartzunarekin.



Lasarte-Oriatik ateratako ibiltariak goizean goiz, Aginara abiatu aurretik.

ATLETISMOA.



Zakila Bira proban parte hartu zuten Ostadarreko korrikalarietako batzuk. J. IPARRACIRRE

David Martin bosgarren Zakila Bira lasterketan. Urriaren 6an, Zumaiako Zakila Bira lasterketa izan zen eta bertan Ostadar SKT-ko korrikalariak eta hainbat herritar izan ziren parte hartzen. Herriko hoberena David Martin izan zen, 01:06:55 denbora eginaz bosgarren postuan amaitu zuen. Era berean, Gonzalo Sukunza herritarra lehen hamarren artean izan zen eta hamaikagarren postuan, Raul Gomez sailkatu zen.

bihotzetatik plazara

Maite

BETELU

8.enean ere, gu euskararen alde!

- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliariako zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**

Aralar plaza 4 behea • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117

KROSA.-

Lasarte-Oria Bai! Krosa aurkeztu da

Urtero hutsik egin ez duen kotxe-eskoba taldeak eramango du aurten 1 dortsala

Lasarte-Oria Bai! krosa urriaren 28an izango da eta gaurtik aurrera, izena eman ahalko da hone-tan parte hartzeko. Aurten 1 dortsala kotxe-eskoba taldeak eramango du.

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak asteazkenean aurkeztu zuen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia-aren XVII. edizioa.

Lasterketa urriaren 28an izango da, goizeko 10:30ean hasita eta 10.500 metroko ibilbidea egingo dute parte hartzaileek. Antolatzaileek esan moduan, aurtengo edizioan ez da aparteko aldaketarik egongo, "joan den edizioan Okendo plaza berreskuratu genuen, eta bertan geratzeko asmoa dugu luzarozan".

Horretaz gain, iazko edizioan dortsalak, txipak eta kamiseta teknikoak bezperan banatu zituzten lehen aldiz, eta larunbatean pasatako korrikalari kopuruari errepara-

tuta aurten gauza bera egitea erabaki dutela azaldu zuten, baita, ordutegia larunbat goizera ere zabalduko dutela.

1 dortsala

Azkeneko hiru edizioetan bezala, aurkezpen ekitaldia 1 zenbakidun dortsala banatzen baliatu zuten Ostadar S.K.T.ko arduradunek.

Aurtengoa berezia da, ez baita bat zenbaki bakarria izango, edizio guztietan lasterketa ixten duen kotxe-eskoba taldeak baitu aurten 1 dortsala eramateko ohorea.

Izen-ematea

Aurkezpen ekitaldian aurreratu zuten, izen-ematea gaur, urriaren 15ean, zabalduko da eta urriaren 24an itxiko da.



Aurkezpenean Ostadar SKT-ko arduradunek 1 dortsala eraman zioten kotxe-eskoba taldeari.

Era berean, izena emateko aukera ugari daudela azpimarratu zuten. Ostadar S.K.T.k Geltoki kaleko 25. zenbakian duen egoitzan astelehene-tik ostiralera (17:00etatik 20:00etara) edo hilaren 20an (11:00etatik 13:00etara) egin daiteke; www.ostadarskt.org

edo www.kirolprobak.com web orrialdeetan; lasterketa egunean Michelingo frontoian (9:00etatik 10:00etara) eta Donostia, Zumarraga eta Tolosako kirol denda batzuetan.

Kros txikia

Era berean, Korrika Festaren

hamabigarren edizioa ere izango dela aurreratu zuten.

Antolatzaileek aipatu zuten, bost eta hamalau urte arteko 800 korrikalari inguru espero dituzte.

Izen-ematea Ostadar S.K.T.ren egoitzan egin behar dute.

LUIS CAR

autobusak

€uskararen alde!



- Españiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako mikrobusak.
- 55 plazako autokarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



IZENA EMATEA

Festa parte hartzailea izango da

Udaletxeko bisita, Benedika eta babarrun txapelketan izena ematea zabalik aste osoan

Euskararen Maratoiak herritarren parte hartzea beharrezkoa du. Jaialdian herriko elkarte eta talde askok parte hartzen dute eta euren laguntza eskaintzen dute jaialdia aurrera atera dadin, hala ere funtsezkoa da herritarrek gogoz hartzea antolatzen diren ekintza guztiak jendetsuak izan daitezken. Oraindik izena eman daiteke Udaletxeko bisita gidatuetan, Benedika mendira igoera edota Babarrun txapelketan parte hartzeko animatu eta irten plaza!

A din eta gustu guztienezko ekintzak antolatu dira Euskararen Maratoian. Aurten edizioan nagusiak dira Udaletxe berrira antolatutako bisita gidatuak, Benedika mendira igoerak, eta babarrun txapelketa. Azken aste honetan hauetan parte hartzeko izena emateko aukera dago.

Jakin mina

Udaletxe berria barrutik nolako den jakiteko gogoia dute herritar askok. Gogo honek bultzatuta dagoeneko jendeak izena eman du bisita gidatu berezi hauetan parte hartzeko.

Udaletxe berrian, 30 minutuko iraupena izango dute bisitek. Txanda bakoitzean gehienez 20 lagun onartuko dira, eta izena alde aurretik eman behar da Ttakunen edo udaletxeko euskara-zerbitzuan.

Guztira, asteburuan 32 bisita egingo dira. Bisita gidatu horiek, euskaraz izango dira, eta Udalak abian jarri duen Euskararen Bidegorria egitasmoa ere azalduko da hauetan.

Hori bai, bisitak 16 urteko gorakoentzat izango dira eta beraz, ezingo da haurrik eraman antolakuntzatik azpimarratu nahi izan denez.

Benedika ezagutu

Mendizaleak direnentzat, bestalde, aurten Buruntzara igo beharrean Lasarte-Oriako ere-

muan dagoen mendi bakar eta ezezagunera egingo dira txangoak,

Benedikara hain zuzen. Mendi txikia izaki, 223 metro, txangoa adin guztietarako da aproposa izan ere ibilbidearen zati handi bat espaloitik, asfaltotik egiten da. "Paseo polita eta guztiz aproposa mendian ibiltzeko ohiturarik ez dutenentzat zein haurrentzat," antolatzaileek esan moduan.

Lehen igoera, 8:30ean izango da larunbatean, urriak 20 eta Ostadarreko kideek



Epaia mahaiakideek zaila izan zuten aurrekoan babarrun hobereak aukeratzea.

egingo dute tontorrean buzoia jartzeko. Ondoren, beste 25 txanda daude, nahiz eta ordu

tarte batzuk dagoeneko beteta egon. Maratoian zehar txangoak Okendotik abiatuko dira

eta Kotxeras inguruan Ozta-ran eskola aldera hartuko da espaloia. Behin hara iritsita, eskolaren atzetik ateratzen den bidexka bat jarraituta Garratzako aldapan gora egin eta azken bidexka batek zuzenean eramango ditu mendizaleak tontorreraino.

Egun Benedikara igotzeko bidea ez dago behar bezala adierazita eta Maratoiko txango hauek ere horretarako baliatuko dira. Bidea seinalizatu egingo da eta Maratoia pasata ere hauek aurrerantzean herritarrek bertara igotzeko aukera izan dezaten galtzeko arriskurik gabe.

Izena ematea

Izena emateko aurten lehen aldiz on-line egin daiteke www.euskararenmaratoia.com helbidean sartuta, Ttakuneko egoitzatik pasata edo 943 376 858 zenbakira deituta. Animatu eta izena eman. Bihoztetik plazara!

Babarrun txapelketa irekia igandean

Euskararen Maratoian jatorduek dagoeneko leku garrantzitsua dute egitarauan eta nola ez, ezin falta jatarekin zerikusia duen ekintza. Horregatik, babarrun txapelketa antolatu da.

Aurrekoan herriko elkarteek soilik hartu zuten parte baina honetan herritar guztiak dute aukera. Parte hartzaile guztiak lasarteoriatarak izan beharko dute, Lasarte-Orian jaio, bizi edo lan egiten dutenak.

Lehiaketa egunean, parte hartzaileek babarrunak prestatzeko era azalduko duen errezeta bat aurkeztuko diote epai mahaiari. Errezeta horretan ez du izenik jarriko, antolaketak aurretik emandako zenbaki bat baizik.

Antolaketak jarriko ditu babarrunak, talde bakoitzak 0,5-1 kilo babarrun izango ditu maneatzeko. Talde bakoitzarentzako aza bana, txorizo buelta bana eta txerri kostila zati bana emango zaio. Sukaldatzeko beharrezkoak diren suak eta

lanerako mahaiak egokituak egongo dira. Parte hartzaileen esku izango dira bestalde, jakiak prestatzeko beharrezkoak dituzten ontziak eta lantresnak baita jakiak epai mahaiari aurkezteko platerak.

Lehiaketa igandean 10:00etan hasiko da eta 13:30ean epaimahaiko kideek babarrunak dastatu eta txapeladunen izenak emango dituzte. Epaia emateko kontutan izango da nagusiki: babarrunen konsistentzia, saldaren lodiera, kolorea eta noski, zaporea.

Epaimahaia osatuko duten lagunen izenak berriz, sekretuan daukate txapelketako ardura-dunek. Pista bakarra herriko hainbat jatetxetako sukaldariak izango direla da.

Txapelketan parte hartzeko izena aurrez eman beharko da. Parte hartzaile kopurua mugatua da. Kopurua gaindituz gero antolakuntzak zozketa egingo du, nork parte hartu erabakitzeko.

InmoGes
Inmobiliaria
8 Maratoiarekin euskararen alde!
 Kale Nagusia 12-3
 Lasarte-Oria
 Tel.: 943 376662

Foto depilazioa argi pulsatuarekin
8.eanean ere, gu euskararen alde!
euskararen 8 maratokia
MAITE
ESTETIKAKO ARETOA
 Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!
Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

OTORDU PAREGABEAK EUSKARAREN 8. MARATOIAN

Jaki gozoak Maratoioian

- Otorduak prestatzeko herriko elkarten laguntza izango du Maratoiko lantaldeak
- Aurten Maratoiko pintxoak dastatzeko aukera izango da igande eguerdian, txosnan

Euskararen 8. Maratoiairen barruan ekintza ugari izango da. Erritmoa bizia izango da, baina lasai egoteko tartetxoak ere izango dira, jatorduak. Aurten aurreko maratoian bezala lau izango dira Okendo plazan egingo diren otorduak. Hau guztia lantalde batek antolatu du, baina maratoiko egunetan elkarten laguntza izango dute jantaria prestatzeko.

Duela lau urte berrikuntza handi bat izan zen Euskararen Maratoiairen barruan lau jatorduen prestatketa. Honen arrakasta ikusita antolakuntzak otordu guztiak mantentzeko asmoa du aurten ere.

Otordu hauek antolatzeko lan handia egiten da eta otorduen lantaldeaz gain, Lasarte-Oriako elkarteek ere parte hartuko dute hauek prestatzen.

Menuak pentsatzen

Koldo Iribar, Mari Karmen Ormazabal, Gorka Lasar, Alex Ramos eta Aitor Eizagirrek osatutako lantaldea maiztean hasi zen lanean.

Otorduen menuak pentsatzeko "Juan Luis Eizmendi sukaldariaren esperientzia eta laguntza izan dugu," aipatu digute. Izan ere, berrehun pertsona baino gehiagorako jatorduak izango dira Okendo plazan eskainiko direnak.

Elkarten laguntza

Honetaz gain, lantaldeko kideek azaldu digutenez, elkarte gastronomiko guztiak lagunduko dute era batean edo bestean Euskararen 8. Maratoian.

Honela, larunbata goizeko txokolatada Lasartearra elkartearen esku egongo da.

Larunbateko paella jana "herriko koadrila batek egin-

go du Buruntz Azpiko elkartearen laguntzarekin".

Semblante Andaluz, Palomo Linares, Saustatxo, Arriekalleta, Buruntz Azpi eta Udaberrik prestatuko dute larunbateko afari gozoa. Menua kalabazin krema eta haragi gisatua izango da.

Honetaz gain, gaupasa egiten dutenek Xirimiri elkarte sukaldariak egindako salda dastatu ahalgo dute igande goizean.

Eguerdian, berriz, Babarrun jana izango da. Intza eta Extremadura etxeko kideek mimo handiarekin prestatuko babarrunak izango dira.

Era berean, herritar batzuk babarrun txapelketan egindako eltzekadak dastatzeko aukera ere izango dutela



Paella gozoa, txekor erreka edo babarrun jana izango dira Euskararen 8. Maratoian. Txosna ere egongo da Okendo plazan.

aipatu digute lantaldeko kideek.

Afarian berriz, Eusko Labelako txekorria eta entsalada izango da. Baina kasu honetan ez da elkarerik izango prestatuntzan. "Etxezarreta Harategia eta Eusko Label-eko

jendearen esku, geratu da txekorria erretzea," azaldu dute.

Partehartzea

Lantaldeko kideek jakitera eman dutenez, otorduak ez dira zerbitzatuak izango, larunbateko haurren bazkaria

eta afaria izan ezik. Beste jatorduetan bakoitzak txosnan jaso beharko du janaria.

Larunbateko afaria zerbitzatzeko eta otorduetan mahaia jarrai eta kentzeko jendea behar dela gogora arazten dute lantaldeko kideek.

Era honetara, euskararen-maratoia.com orrialdean izen-eman behar dute laguntzeko prest dauden herritarrek.

Txartelak

Bestalde, otorduetako txartelak dagoeneko salgai daude Jalgi Kafe-Antzokian eta Ttakun elkartearen.

Larunbateko bazkariak prezioa haurrentzat 2 eurokoa da eta helduentzat 6 euro. Afariari dagokionez 18 euro dira. Bestalde, igandeko bazkariak 6 euro balio ditu eta afariak 9 euro.

Maratoiko pintxoak eta pintxo pote mundiala

Jatorduetako orduetatik kanpo gose denak ere moka-du bat jateko aukera izango du Okendo plazan jarriko den txosnan.

Honetan haragi egosia, txorizoa eta patata tortilaz gain, arkume eta txerri erreka izango dira.

Igandean, gainera, Euskararen 8. Maratoiko pintxoak dastatzeko aukera izango

da. Sausta jateko lagunek sortutako pintxo mundialak dira: ajoarriero eta zentolloz eginiko pintxoak, txekor karrillera eta patata pure krematsuz eginiko pintxoak, betiko urdai azpiko kroketak eta hojaldrean erretako txistorra.

Beraz, gerturatu asteburuan txosnara eta dasta itzazue jaki gozoak.

Pintxo potea

Honetaz gain, pintxo pote mundiala izango da larunbata goizean.

Herriko hainbat tabernek euskararen maratoiarekin egingo dute bat, Buenetxea, Abend, Insausti, Arkupe, Gure-Etxea, Artizar, Jalgi kafe-antzokia, Artizar eta Kantoi eta pintxo poteaz gozatzeko aukera izango da.

COPILASARTE

Euskararen alde!




- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK
- AZALEZTATZEAK
- PLASTIFIKAZIOAK

Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria

8. bihotzetik plazara

Etorri gure jaki goxoak probatzera

Ola katea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768





Euskararen 8. M

Osteguna 18

21:30 "Gartxot" pelikula
Manuel Lekuona
kultur-etxean

Larunbata 20

08:00 Lekukoa udaletxean eta
euskara plazara!!!!
08:10 Hasiera ofiziala
08:22 Maratoiko bando berezia
08:25 Hitz musikatuak
08:30 Benedika mendia ezagutzera!!!
08:45 Ezagutu Udaletxe berria
08:50 Diana mundiala
09:05 Elkartasun azoka
09:20 Adinekoen gimnastika
eta abesbatza

09:25 Foto Kall berezia
09:30 Txokolate gozo-gozoa
10:05 Sasoeta eta Landaberrikoen
emanaldi mundialak
11:00 Maratoiko pintxo pote
berezia Lasarte-Orian
12:00 Pausoka-pausoka Jalgunerekin
12:05 Kalejira mundiala
12:45 Erreskate ikusgarria (DYA)
13:15 Paella mundiala haurrentzat
14:30 Ezkontza bazkari berezia
14:46 Haurrentzako tailerrak
16:01 Emanaldi paregabeak
(ATCko neskak, Centro
Cívico, EPA...)
17:05 Pirritx, Porrotx eta
Marimotots elkarteekin
abesten
18:05 Erromeria Trikihotsekin
19:05 Gazteen txokoa
(Landaberi)
20:20 Moda desfile mundiala
21:15 Bertso saio berezia
22:00 Maratoiko afaria
23:05 Bikotekako bertso pinala
23:45 Hoi denk hoi talentuba.





Maratoiko egitaraua

Igandea 21

- | | | | |
|--------------|---|--------------|---|
| 01:05 | Makulu Ken eta Gaueko Itzalak taldeen kontzertuak | 16:10 | Xake eta Mus txapelketak |
| 03:30 | Karaoke rockeroan abestu | 16:30 | Magia ikuskizuna Rafafa magoarekin |
| 05:00 | Garbiketa | 17:15 | Maratoiko bataioa |
| 08:05 | Txistularien diana erraldoia | 18:05 | Musika eta dantza ikuskizunak |
| 08:05 | Salda bero-beroa | 18:20 | Txulalai erraldoia |
| 08:30 | Lasarte-Oria esnatu saioa | 18:30 | Erromeri mundiala |
| 10:05 | Artisau azoka mundiala | 19:05 | Hitzarturekin dantzatu |
| 10:05 | Amalur taldearen ekitaldia | 19:45 | Ezagutu Udaletxe berria!!! ekimenaren amaiera |
| 10:12 | Haurrentzako herri kirolak | 21:05 | Txekor afari gozo-gozoa |
| 10:45 | Babarrun lehiaketa | 22:00 | Benedika ezagutzera!!! probaren amaiera |
| 11:00 | Dastatu Maratoiko pintxo bereziak txosnan | 22:30 | Bukaerako ekitaldia |
| 12:00 | Proba mixtoa | 23:30 | Euskararen Maratoiari agur |
| 12:05 | Kantu jiraren hasiera | | |
| 12:30 | Buruntza mendiko errekorra puskatzen | | |
| 12:31 | Telleria harri jasotzaileak | | |
| 13:10 | Buruntza mendiko errekorra puskatzen | | |
| | Okendo plazara buelta | | |
| 13:15 | Proba Konbinatua | | |
| 13:50 | Kantu jirako lagunak oholtzan | | |
| 14:30 | Babarrun jana | | |
| 15:01 | Kantatu nirekin | | |





EUSKARA ETA MAITASUNA



Bikotea lotsati azaldu arren, ezkontzaren inguruko hainbat detaile eman nahi izan zizkigun.

Maitasun konpromezua

■ Alex Tello eta Ion Martinez larunbatean ezkonduko dira Okendo plazan ■ Ospakizun handia eta bazkari berezia bertan egingo dute herritar, lagun eta familiaren aurrean

Zortzikoteko kideek aurreratu moduan, Euskararen Maratoian ezkontza bat izango da larunbatean. Bikotea Alex Tello eta Ion Martinez "Txiki"-k osatzen dute. Biak antzerki mundukoak dira eta aurreko Maratoian ezagutu ziren Joxe Mari Agirretxek (Porrotx) aurkeztuta. Hiru urte luze daramatzate bikote bezala eta polita iruditu zitzaizen Maratoian bertan, lehen aldiz hitz egin zuten lekuan, euren ezkontzaren ospakizuna egitea.

Alex Tello eta Ion Martinez "Txiki"-k euren ezkontza Euskararen Maratoian ospatzea erabaki dute. Hasieran ezkontza intimoa aurreikusita zuten "ez genuen modu handian ospatu nahi baina azkenean erabaki dugu behar bezala ospatzea dela gure arteko konpromezua".

Iza ere, ezagun askok oraindik ez dakite bikote direnik "jende guztia gure zorian

tasunaren lekuko izatea nahi dugu". Hori bai Maratoian protagonismoa kendu gabe.

Bikoteak Zumaburun etxea erosi zuen duela sei hilabete inguru "eta behin urrats hau emanda, naturala iruditzen zitzaigun ezkontza, ofizial egitea gure elkarbizitza hau". Gainera "Pablo Barrio alkatea antzerki gizona izaki ilusio berezia egiten zigun berak gu ezkontzea baina ezingo du hauteskundeak direla eta".

Antzerkiak elkartuta

Antzerkiak batu zuen bikotea. Biak aktoreak dira eta antzeztan ezberdinak antzeztan dabilta. Jon "Ispilua" lanarekin dabil orain "Alexek asko lagundu ninduen Oteizari buruzko antzeztana prestatzen eta hor sendotu zen gure harremana, lan ordu asko elkarrekin egin genituen".

Duela lau urte ezagutu arren, bikote bezala hiru urte luze daramatzate. "Maratoian ezagutu ginen baina apirila arte, Usurbilgo Antzerki egunean esan daiteke, ez ginela serio hasi". Hilabete horietan antzerkiak ikustera joateko

aitzakiarekin geratzen ziren, hori bai geroz eta maitasun handiagoarekin.

Ezkontza berezia

Ezkontza egunari dagokionez, egun handia izango da. Ez zuten Maratoian protagonismo askorik hartu nahi baina beste behin, Joxe Mari Agirretxek erraztasun asko jarri zitkien. "Berak gonbidatu gintuen Maratoian ospatzera eta egia esan kontutan izanda hemen ezagutu ginela aukera ezinhobea iruditu zitzaigun. Gure senideentzat txartelak hartu ditugu eta plazan bazkalduko dugu".

Bikotea ezkontzako jantzi eta azken prestaketekin dabil lanpetuta. Urduritasuna dagoeneko nabaritzen dute baina aldi berean eguna iristeko gogoz. Familiakoak ere pozik daude eta ondo ikusi dute bikotearen erabakia, "nire ama urduri dago, dena ondo ateratzea nahi du" azpimarratzen du Tellok. Hori bai ezkondu ondorengo lehen dantzarako "Ilusio berezia egingo liguke Eñaut Elorrietak Ilargia guretzat abestea".

Eztei bidaiari dagokionez, "uda arte itxaron beharko dugu lana dela eta ezin ditugu egunak orain hartu, Ugandara joateko asmoa dugu". Beraz Maratoian bikoteak euskara eta maitasuna uzartuko ditu bere konpromezuan eta Okendon bildutako herritarrak honen lekuko izango dira. Zorionak bikote!

Alex Tello eta Ion Martinez aurreko maratoian ezagutu zuten elkar. "Jende guztia gure zoriontasunaren lekuko izatea nahi dugu"




Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

euskararen **8** maratoia

**MINHOTA
TABERNA**

Razioak, Pintxoak...
Etorri dastatzera!



KOTXE KAPOTA ELKARTARATZEA

2008tik aurrera jaiotako haurren bataioa euskararen jaialdian

- Azken Maratoitik hona jaiotako umeei harrera egingo zaie igandean 17:00etan
- Ia 700 haur dira herrian lau urte hauetan jaiotakoak eta denak daude gonbidatuta

Herrian 2008ko urritik aurrera jaiotako haurrei harrera berezia egingo zaie Euskararen Maratoian. Hitzordua igandean 17:00etan izango da. Udalak eskura dituen datuen arabera ia 700 haur dira lau urte hauetan jaiotakoak. Guztiak gonbidatuta daude euren lehen Maratoian parte hartu eta protagonista izatera.

Euskararen Maratoia dagoeneko belaunaldi batzuentzat guztiz errotutako festa da. Errotuta baino, gogoan dute herriko eskolarekin oholta gainean eskainitako ikuskizuna edota gurasoekin plazan pailazo eta antzerkiak ikustea.

Dagoeneko Maratoia lau urtetik behin ospatzen den euskararen ezinbesteko festa da herrian eta nola ez, aurtengo Maratoia herriko haur askorentzat lehenengoa izango da.

Ia 700 ume

Udalak bildutako datuen arabera ia 700 haur jaio dira Lasarte-Orian azken Maratoitik honako tartean. Hauek, noski erroldatutako umeak dira eta etxean Maratoiko ekintza berezi honetan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.

Zortzikoteak harrera berezia egingo die ume guzti hauei eta euren Maratoiko bataioa jasoko dute ekitaldi polit batean. Honela euren lehen Maratoian bedeinkapena jasoko dute oholzatik.

Hau dela eta, antolatzaile eta zortzikoteko kideak haur hauen gurasoei deia egin nahi diete igandean, urriak 21, 17:00etan Okendo plazara gertura daitezen festa honetan

parte hartu eta prestatutako ezustekoekin gozatzeko.

Ekitaldi berezia

“Kotxe Kapota” elkartaratzea deitu zaio ekintzari eta bertan egingo dutena sekretupean dute zortzikoteko kideek.

Aurreratu daitekeen gauza bakarra da Agus Mujika (Takolo) eta Joxe Mari Agirretxe (Porrotx) zortzikoteko kideak direla bereziki ekitaldi hau prestatzen jardun direnak eta gidatuko dutenak, beraz ezustekoak asko izango direla aurreikusitu daiteke.

Horretaz gain, noski ekitaldia irekia izango da eta bertara gerturatzearekin nahikoa izango da. Herrikoak izan ez eta lehen Maratoia duten haurrentzat ere ekimen polita izango da eta parte hartu ahal izango dute.

Euskaldun belaunaldi berriak

Lasarte-Oriako umeak txikitatik Maratoia ezagutu eta euren parte direla ere adierazi nahi zaie ekimen honekin.

Lehenengo aldia da horrelako “bataio” masiboa antolatzen dela Euskararen Maratoia baita eta herriarren erantzuna ere handia izatea gustatuko litzaieke



Haurrek beti izan dute Maratoian euren tartea eta pailazo, mago edota ipuin kontalariak beti harrera ona izan dute.

antolatzaileei. Izan ere, “haur hauek izango dira datozen Maratoietako protagonistak eta euren ardura izango da oraindik Lasarte-Oria euskaldunago batean bizitzea”.

Hamaika ekintza

Honetaz gain, izango dira asteburuan zehar haurrei zuzendutako bestelako ikuskizun, jolas eta ekintza. Ohi

bezala Euskararen Maratoiko 40 ordutako egitarauan bereziki zaindu da haurrei eskainitako lekua.

Besteak beste, haurren bazkaria izango da larunbatean, tailerrak bertan mota guztietako eskulanak egin ahal izango dituzte eta pailazoak. Hauek herriko elkarten laguntza izango dute oholta gainean eta aurrekoetan beza-

la, ikuskizun paregabea egingo dute.

Honekin batera eurena izango da protagonismo osoa larunbatean ikastetxeetan prestatutako emanaldiekin, hau 10:00etan hasiko da eta herriko eskolako haur gehienak pasako dira oholzatik bereziki Maratoirako prestatutako saioak maixuki eskaintzeko. Askok dira entseguak eta trebezia guztia erakutsiko dute honetan.

Igandean berri, lau urte azpikoentzat prestatutako harrera berezi honetan gurasoek lagundu ahal izango dituzte txikiak eta hauei ere ongi etorria egingo zaie.

Lau urte hauetan ia 700 haur jaio dira Lasarte-Orian eta denak daude bataio honetara gonbidatuak

Fernández
e h u n a k

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

8.enean ere, gu euskararen alde!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

LIBRERIA MAITE

Beti euskararen alde!

Geltoki 12 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372791



KIROL PROBA UGARI IGANDEAN

Kirola egiteko aukera paregabea

■ Endika Gartzia herritarrak Buruntza mendiko errekorra hausteko asmoa du aurten

Eukara bihotzetik plazara aterako duen Maratoian ez da guztia festa izango. Kirola egiteko tartea ere izango da igande goizean. Haurrentzako herri kirolak eta gazte eta helduei zuzendutako proba konbinatua izango dira Ostadar SKT-ren eskutik. Gainera, Buruntzako errekorra hausti nahi du Endika Gartzia herritarrak.

Euskararen 8. Maratoian Benedikara joan-etorriak egiteaz gain, kirol egiteko beste aukera batzuk ere izango dira igande goizean. Herri-kirolak, proba konbinatua eta Endika Gartzia Buruntza mendiko errekorra hausten saiatuko da.

Herri kirolak haurrentzat

Ostadar SKT-ren eskutik herri kirolak eta proba konbinatua izango dira igande goizean.

Sokatira, lokotxa biltzea... izango dira Ostadarreko lagunek prestatutako probak.

Eta helburua haurrak kirol hauek ezagutu eta hauetan trebatzea da.

Proba konbinatua

Bestalde, proba konbinatuan gazte eta helduen taldeek parte hartuko dute.

Lau pertsonetako taldeak izango dira eta bakoitzak proba bat egin beharko du. Batek korrika, besteak patinetan, hirugarren batek ergometroan eta azkenak tirolinan Mercero plaza gainera hegan egingo du.

Proba honetan parte hartu nahi duten taldeek euskararenmaratokia.com orrialdean izen-eman behar dute.

Buruntzako errekorra

Hau guztiaz gain, Endika Gartzia herritarra berriro ere



Endika Gartzia herritarrak Buruntza mendiko errekorra hasuten saiatuko da. Aurten gainera lehiakideak izango ditu.

Buruntzako errekorra hausten saiatuko da. Okendo plaza eta Buruntza mendiko gurutzerako joan-etorria bizikletaz eta korrika egingo ditu.

Baina oraingoan ez du kronoa bakarrik hautsi behar-

ko lehiakideak ere garaitu beharko ditu.

Izen ere, Iraitz Arruabarrenak eta Jonatan Floresek osatutako bikotea izango du aurrez aurre. Jonatan Floresek ibilbideko bizikleta zatia

gingo du eta Iraitzek, berriz, Buruntza mendiko magaletik gurutzerako joan-etorria egingo du lasterka.

Beraz, Endikak lehia bikoitza izango du, batetik erlojua eta bestetik arerioak.

MARATOIKO EKINTZA BEREZIAK



Foto kall berezia.- Iñigo Artola herritarrak bi urte hauetan jende ezagunarekin atera dituen argazkiak ikusgai izango dira Euskararen 8. Maratoian zehar. Euskal aktore eta euskal munduko pertsonaiak dira gehienak. Hurbildu foto kall berezi honetara eta Iñigorekin argazkia ateratzeko aukera ere izango duzue.



Elkartasun azoka.- Elkartasun esparruan lanean dauden herritar ugari dago. Hori dela eta, azoka berezia izango da larunbata goizean. DYA, Odol emaileak, suhiltzaileak, Saharako Herriaren lagunak, Aspanogi, Alcer, Adengi, Gizakien Lurra, Etiopia Utopia, Gautena, Mundu Bat, eta Ume Alaia elkarteek haien ekintzen berri emango dute. DYAK eta suhiltzaileek simulakro bat ere egingo dute.

Eta kontzertuak.-

Honetaz gain, ohol-tza ganean herriko bost talde entzuteko aukera izango da, Trikihots, Hitzartu, Gaueko Itzalak, Makulu Ken eta Ahuen.

Larunbata arratsaldean Trikihots taldearekin erromeria eta dantza izango dira. Jarraian, gazteek antolatuta, Ahuen taldea arituko da. Larunbata gauean, berriz, bi estilo desberdinez gozatu ahal da, batetik Makulu Ken taldearen afro-euskaldunaz eta bestetik Gaueko Itzalaren metal doinuak. Igandean, arratsaldean Hitzartu taldeak jarriko du plaza dantzan.

euskararen 8 maratokia



DANA ONA

JATETXEA

- Euskal Herriko sukaldaritza
- Jangela egoki-egokiak, ezkontzak, jaunartzeak eta beste edozer ospatzeko
- Etxeko espezialitatea: parrillan ERRETAkoarraina eta okela.

restaurante@danaona.com
Zubiet a (Hipodromoaren ondoan)
Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxa: 943 366020



ETXEZARRETA
1968-ik

HARATEGIA

bihotzetik plazara

TXEKOR HAU IGANDE GAUEKO AFARIAN DASTATZEKO

Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA

SANCHO TABERNA

Euskararen alde 8. maratoiarekin!

Kaxuela, pintxo eta morunoetan espezializatua

Ogitartekoak Pintxoak

HITZARTUTAKO eta TALDEENTZAKO MENUAK

Plater konbinatuak Eguneko menua

Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075

ILLARRETA ITURGIINTZA

75 URTEURRENA 1935-2010

info@illarreta.com

Euskararen alde!

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147

TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak
- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Agenda

Asteazkena 17, 18:00ean, haur liburutegia



Beste munduak ezagutzen

Lasarte-Oriako liburutegiak haurrentzat antolatzen dituen ekintzen barruan ipuin kontalariak daude. Hauek mundu eta pertsonaia bereziak aurkezten dizkiete haurrei. Lehen saioa asteazkenean izango da. Honetan Pello Añorga 4 eta 5 urte arteko haurrei ipuinak kontatuko dizkie.

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 20, 23:30ean

Euskararen Maratoia dela eta, Salda Mr Dubbin-en saioa. Estilo desberdinez (funky, salsa, musika afrikarra...) gozatzeko aukera.



Ostirala 26, 23:00etan

Kantaginjazz emanaldia izango da. Iñaki Salvador piano jole eta Ainara Ortega abeslariaren eskutik Euskal Kanta klasikoak jazz formatuan.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 26, 23:45ean

Punk Rock gaua izango da Sutura eta Xuorum taldeen eskutik. Sarrera 5 euro. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 18, 21:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, Oken-do Zinema taldearen eskutik, "Garxtot"-en kondairaren marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarre-arak leihatilan, 4,50 euro; internetez, 4 euro. Euskararen 8. Maratoiarekin bat eginez.



Igandea 28, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Madagascar 3" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarre-arak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro.

Euskararen Maratoia

OKENDO PLAZA

Larunbata 20 eta igandea 21

Euskararen 8. Maratoia ospatuko da gure herrian.



Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urria osoa

Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 1-Astelehena 15

Medicus Mundi elkartearen argazki erakusketa ikusgai izango da.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera ematen dute bulegoan gauza hauek daudela jasota, betaurreko graduatu batzuk, bi eguzkitako betaurrekoak, hiru mugikor, ezkontza eraztun bat, mp3 bat, larruzko poltsa bat eta mikrotxipen plaka bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesatuta dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Iradokizunak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du.

Orrialde hau Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren

dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Iradokizun guztiak kontuan hartuko dira eta alkatetzatik konpromisoa hartzen dute lehen bai lehen erantzuna emateko, parte-hartzea eskertuz.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gogezko Sak arte irekita!



ABEND
KAFE-ANTZOKIA

8.

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK

Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA

Euskararen 8. Maratoia!

Jalgi
KAFE-ANTZOKIA



Euskararekin bat Euskararen 8. Maratoian

*kontzertuak
antzerkiak
giro paregabea pintxo goxoekin*



**GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**

euskararen 8. maratoia ANIMATU partehartzera!!

**Udaletxe berria ezagutu
Mintzodromoa
Babarrun txapelketa
Benedika mendira igoera.**

KAMISETAK eta otorduetako **TXARTELAK**
salgai Ttakun kultur elkartearen
eta Jalgi kafe-Antzokian

Urriak 20
Bazkaria haurrak 2 euro eta helduak 6 euro
Afaría 18 euro

Urriak 21
Bazkaria 6 euro
Txekor jana 9 euro



**5 egun
falta dira**

www.euskararenmaratoia.com

Lasarte-Oria 2012ko urriaren 20a eta 21a



16

euskararen 8 maratoia

2012-10-15 txintxarri 1051



factory logistika

Soinua & Argiak



Euskararen alde 8. maratoiarekin!

www.factoryweb.org

factorylogistica@gmail.com

943 504480
605 758572



ELECTRICIDAD
ARREGUI



euskararen 8 maratoia

- Material elektrikoa
- Argiak **8.enean ere, gu euskararen alde !**
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Orain
sukaldeko tresneria
salgai !

www.electricidadarregui.com



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

EKITALDI POLITIKOA

LASARTEKO OKENDO PLAZAN

Urriak 17, 19:00etan



BOZKATU **ehbildu**